



DURANGOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE DURANGO

Memoria politikoa

Memoria Política

2026



2026KO AURREKONTUA

MEMORIA POLITIKOA

Memoria honek modu errazean azaldu nahi ditu Durangoko Udalaren 2026. urterako aurrekontu-proiektuaren ezaugarri eta helburu nagusiak.

1.- SARRERA

2026ko ekitaldirako aurkeztutako aurrekontuak EAJ-PNVk eta PSE-EEK osatzen duten udal gobernu taldeak 2023-2027 legegintzaldian garatu nahi duen ekintza politikoaren isla dira, eta Gobernu Programan ezarritako helburu eta ekintzei erantzuten diete.

Gainera, egindako topaketen bidez eta 2025eko ekainean egindako herritarren inkestaren bidez, Durangoko herritarrei aktiboki entzunez antzemandako beharrei erantzuten diete. Era berean, aurrekontu parte-hartzaile anbiziotsuak aurreikusten dituzte, 600.000 €ingurukoak (570.000 €), durangarrek eurek aukeratutako proiektuetarako.

Aurreko ekitaldian iragarri bezala, tasak eta zergak izoztu eta hobari berriak ezarri dira, eta horrek gastuari eustea eta inbertsioak doitzera ekarriko luke. Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiak diru gehiago bildu duenez, Udalkutxaren ekarpena handitzea aurreikusten da, eta, horri esker, lehentasunezkoenak diren esparruetan zenbait inbertsio egin ahal izango ditugu, betiere pertsonak erdigunean jarrita.

Era berean, gobernu-taldeak beste erakunde batzuekiko lankidetzaz-ildoan lan egiten jarraitzen du, 2026ko ekitaldian eta hurrengoetan programa eta inbertsio berriei ekiteko.

Testuinguru horretan, gobernu-taldearen lehentasunetako bat da herritarren eskaera nagusiei erantzuten lagunduko duten neurriak eta ekintzak ezartzea, durangarren ongizatea eta bizikaltatea hobetzera bideratutako zerbitzuak, programak eta ekintzak indartzea, bai eta enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzea ahalbidetuko dutenak ere. Hala, hainbat ekintza proposatzen dira **etxebizitzaren** egungo arazoa arintzeko eta eremu horretan Durangoko herritarren eskaerei erantzuteko, egungo **aparkaleku-sistema** hobetzeko, **segurtasuna** indartzen jarraitzeko, **genero-indarkeriaren unitatea** hobetzeko, eta **berdintasunean, gizarteratzean eta haur eta gazteen** artean ekintza berriak egiteko, eta Durango Kirolak-en **kirol eta jarduera fisikoko zerbitzu eta instalazioak** hobetzeko, Durangori bere premien arabera adinekoentzako zentro bat emateko proiektu bat egiteko, **Antso Estegiz** oinezkoentzako egiteko bigarren faseari ekiteko, **kultura-, merkataritza- eta turismo-**jarduera sustatzen jarraitzeko eragile ekonomiko gisa, arreta berezia jarrita **Plateruenan, Landako Gunean eta Merkatuan, eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorren** izapidetzean aurrera egiteko, honen hasierako onarpena lortzeko, izaera estrategikoko proiektuak garatzeko, funtsezko elementu gisa, **Trenbideko BEPBa** besteak beste.

2.- 2026KO AURREKONTUA

Durangoko Udalak **45.349.979,03** euroko aurrekontua izango du 2026an, aurreko ekitaldian baino % 5,55 gehiago (42.963.523,85 €- €2025ean). Aurrekontu bateratua, erakunde autonomoak ere biltzen dituen, 48.664.662,13 eurokoa da.

Aurrekontu horrek lehentasunezko eremu hauetan aurreikusitako ekintza, programa eta zerbitzu guztiak jasotzen ditu:

HERRIGINTZA	LURRALDE	ANTOLAKETA
Adinekoak Osasuna eta kirola Gazteria Berdintasuna Gizarte Ekintza Immigrazioa Euskara Kultura Enplegua Jaiak	HAPO – Trenbideko BEPB Etxebizitza Antso Estegiz Tabira Kirolgunea Eguzkitza – Jarduera ekonomikoa Ingurumena Mugikortasuna - Aparkalekua Turismoa eta merkataritza	Segurtasuna Zerbitzu publikoen kalitatea Gardentasuna Parte-hartzea Auzoak Giza baliabideak Informatika Komunikazioa

3.- SARRERA AURREKONTUA

Udalkutxaren ekarpenetik dator, 25.740.482 eurotan kalkulatua. Ekarpen honek % 6,48ko igoera dakar aurreko urtearekin alderatuta, eta horrek aukera ematen digu Durangoko bizilagunen bizikaltatea hobetuko duten hainbat inbertsio merezigarri egiteko. Hala ere, zuhurrak izan behar dugu eta ziurtatu inbertsio horiek ez dutela gastu finkoen igoerarik eragiten. Beste diru-sarrera garrantzitsu batzuk zerga zuzenetatik, tasetatik, ondare-sarreretatik edo hirigintza-jarduketetatik datoz.

Hona hemen 2026. urterako aurreikusitako diru-sarreren laburpena:

DIRU-SARRERA 2026	€	%
ZUZENENKO ZERGAK	8.296.377,43	+1,22%
ZEHARKAKO ZERGAK	1.000.000,00	0%
TASAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK	6.787.693,03	+1,79%
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK (Udalkutxa)	27.451.978,00 (25.740.482€)	+6,46%
ONDAREZKO SARRERAK	246.500,00€	420,78%
HIRIGINTZAKO BESTERENTZEEN ETA JARDUKETEN ONDORIOZKO DIRU-SARRERAK	1.513.430,57	+656,72%
KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	0,00	-100,00%
FINANTZA-AKTIBOAK	54.000,00	0%
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	45.349.979,03€	+5,55%

4.- GASTU-AURREKONTUA

Edozein aurrekontu-proiektuk ekitaldian garatu beharreko ekintzen katalogo bat eskatzen du, eta horrek, ezinbestez, garrantzitsuentzat edo premiazkoentzat jotzen diren jarduerak eta ekimenak lehenestea dakar.

Gastuen aurrekontuak Udalaren helburu nagusiei erantzuten die, eta Herrigintza, Lurralde eta Antolaketa arloetan antolatzen da.

HERRIGINTZA

Herritartasun arloak honako zerbitzu hauek barneratzen ditu: Gizarte Ekintza, Adinekoak, Berdintasuna, Gazteria, Kirola, Kultura, Hezkuntza eta Euskara. Helburu nagusia **Durangoko pertsona guztien ongizatea bultzatzea da.**

Adinekoak: 65 urtetik gorako pertsonen populazioa hazten ari da, eta 2025ean, ahaleginak egin ziren dauden auzoetan eskaintzen diren jarduerak zabaltzeko eta eremu gehiagotara iristeko. 2026an, adinekoen artean nahi ez den bakardadeari aurre egitean zentratu nahi dugu. Horretarako, 20.000 euro bideratu ditugu horri aurre egiten laguntzen dioten jardueretarako eta adinekoen zerbitzuen sailak egindako ekintza guztiak nabarmentzeko kanpaina bat abiarazteko, horietako asko askotan ezezagunak baitira publikoarentzat. Gainera, adinekoen zentro berria legegintzaldi honen hasieratik konpromiso bat izan da. Horregatik, laster hasiko dugu zentro berri honen beharretan oinarritutako parte-hartze prozesu bat, tokiko elkarteekin batera lan eginez. 2026an, zentro berri honen proiektua gauzatuko dugu, eta Saibi eraikinean kokatuko da.

Beste talde bat, nabarmen hazten ari dena eta zeinen integrazioa garrantzitsua den, migratzaileen populazioa da. arreta hobia eman ahal izateko, **immigrazio-arloaren** kopurua % 16,18 handitzen da. Programen zenbakiei eusteaz gain (arrazismoaren aurkako astea, aniztasunaren eskola, Afrikako eguna, bikote linguistikoak edo denboraren bankua), Durangon bizi diren atzerriarren lanari balioa emango zaio, gorroto eta zurrumurru delituak landuko dira eta emakumeen genitalen mutilazioa prebenitzeko programari (EMG) ekingo zaio berriro.

Gizarteratzea lantzen jarraituko dugu, hala, desgaitasuna duten pertsonak kirolean sartzeari buruzko diagnostikoa (Haztenek eginga) egin ondoren, plan horretan jasotako zenbait ekintza abian jarriko dira. Desgaitasuna duten 6-18 urteko adingabeentzako laguntzetara bideratutako zenbatekoa handitu egingo da (20.000 €-tik 25.000 €-ra), Herria Elkaratearekiko hitzarmena (15.000 €-tik 18.000 €-ra) eta Geu Be-rekiko hitzarmena % 50ean igoko da (26.000 €-tik 39.000 €-ra).

Gobernu Talde honek erabateko konpromisoa du **berdintasunarekin**. Azken urteotan urrats asko eman dira Berdintasunaren arloan, indarkeriaren unitatea abian jarri da, ikastetxeetan prestakuntza eman da, berdintasunerako laguntzak eman dira edo jaietako protokoloa ezarri da, besteak beste. 2026. urte honetan urratsak ematen jarraituko dugu. Durangoko Udalak berdintasunean eragin positiboa duen aurrekontu-metodologia landu eta onartu ondoren,

prestakuntza- eta ekintza-prozedura bat abiaraztea planteatu da, aurrekontu-fitxak egiteko ardura duten talde teknikoak hautatzeko.

2026. urtearen amaieran, hiri galdua-puntu beltzen mapa egingo da, Berdintasunerako III. Barne Planaren ekintzak ezartzen jarraitzeaz gain. Gainera, erreparazioa lantzen jarraitzeko, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako aholkularitza juridikoaren zerbitzua jarriko da martxan.

Pertsonen **osasuna** da gure helburu nagusietako bat. **Jarduera fisikoa eta kirola** pertsonen osasunari laguntzeko modurik onenetako bat direnez, kirol-zerbitzuak indartzearen, kirol-instalazioak hobetzearen eta horien aprobetxamendu eraginkorragoa bultzatzearen aldeko apustu garbia egiten dugu. Hala, nabarmen handitu da Durango Kirolakera bideratutako aurrekontua, erakunde autonomo horren zerbitzuak indartu, handitu eta hobetzeko helburuarekin.

Kirola eta kirol-instalazioak pertsona guztientzako eta, bereziki, haurrentzako eremu seguru eta babeslea izan daitezen hasitako bidea lantzen jarraituko dugu. Kirol-instalazioetan ere hobekuntzak egingo ditugu; besteak beste, Tabirako kirol-gunean, igerilekuetarako, kafetegirako, multikantxarako eta futbol-zelairako aldagelak jartzeko instalazio berriak egongo baitira. Ezkurdiko pilotalekurako emakumezkoen aldagelen proiektua ere gauzatuko da, padel kantxetan hobekuntzak egingo dira eta makina berriak Landako Ilko Fitness Aretoan instalatuko dira. Gainera, aurrekontu parte-hartzaileen bidez, tenis-pisten lurzorua aldatuko da egungo istiltze-arazoak konpontzeko, Tabirako futbol-zelaiko belarra berrituko da, San Fausto eta Intxaurrendoko futbito eta saskibaloia kantxak hobetuko dira eta San Roken frontoia izango duen multikantxa berri bat prestatuko da.

Beste arlo garrantzitsu bat **hezkuntza**arena da. Bertan, Durango Herri Hezitzailearen ikuspegitik lan egiten jarraituko dugu eta Eskola Kontseilutik eta Eusko Jaurlaritzatik hezkuntza-eragileekin lankidetzara estua bultzatuko dugu. Hezkuntzaren esparruan, balioetan oinarritutako hezkuntza indartzera bideratutako ekintzak garatuko ditugu; esate baterako, zero elikagai alferrik ez galtzeko hezkuntzako gizarte-programa, ezinbestean prestatu beharreko soberakinak beste pertsona batzuen eskura jarri.

Prestakuntza eta enplegua, tokiko enplegu-plana Lanbiderekin lankidetzan onartu ondoren, abian jarriko dugu, eta 2026ko lehen seihilekoan gauzatuko da. Plan hori 6 pertsonak garatuko dute, eta lehentasuna izango dute kolektibo ahulenek, 45 urtetik gorako langabeek eta genero-ikuspegia dutenek. Eta 2026aren amaieran, hurrengo enplegu-plana jarriko dugu abian, eta kontrataziorako laguntzekin jarraituko dugu.

Hautzaroan eta Gaztaroan, gaur egun, Uniced Haurren Hiri Lagun izateko beharrezko diagnostikoa egiten ari gara. Diagnostiko hori 2026ko lehen seihilekoan amaituko da, eta, ondoren, plan horretatik eratorritako jarduerak egingo dira. Sexu-aholkularitzako programa zabaldtu eta indartuko da, Udalekuak mantenduko dira (irailean jarri dira martxan lehen aldiz) eta ekain-uztailekoak hobetuko dira. Kontseiluko gazteekin lankidetzan jarraituko da, eta jaietan berriro egingo da gau batean gazteekin lan egindako taldeekin, eta Haurren Kontseiluaren proposamenak garatuko dira.

Durangoko Jaiek ere garrantzi handia hartzen dute, bereziki San Fausto Jaiek, indartzen eta hobetzen jarraitu nahi baitugu. Zehazki, aurrekontua handituko dugu jai inklusiboagoak izateko, betiere Jai Batzordearekin landuz.

Kulturaren esparruan, gure kultur instalazioetan garatutako zerbitzu eta programak bultzatzea aurreikusten da, hala nola San Agustin, Bizenta Mogel Biblioteka, Arte eta Historia Museoa, Kurutzesantu, Plateruena, Landako Gunea, Bartolome Ertzilla Musika Eskola, Durango Durangoko Azokatik haratago kulturaren hiriburu bihurtzeko. Horrela, 2026an kultur programazio bizia aurreikusten da aipatutako instalazioetan eta gure kaleetan, hainbat ekitaldi antolatuz, hala nola Euskal Jaia, Gau Beltza, Plazara, Kantari, Dantzaro, BBK Live Herrian eta udalerriko hainbat elkarteren partaidetza eta lankidetza estua, horiek baitira Durangoko tokiko kultur jardueraren eta dinamismoaren zati handi baten egileak. Jarduera horien guztien antolaketa eta koordinazio egokia bermatzeko, ekitaldien teknikari bat kontratatzea aurreikusten da, ekitaldi mota horiek erakartzeaz gain horiek planifikatzeaz eta kudeatzeaz arduratuko dena.

Gainera, 2026an Arte eta Historia **Museoaren 40. urteurrena** ospatuko dugu, eta horretarako programa berezi bat antolatuko dugu.

Aurrekontu honen helburuetariko bat da **euskararen** ezagutza eta erabilera sustatzea eta indartzea Udal-barnean eta herri-mailan. Horretarako, elkarren osagarri diren maila bitan lan egingo du Durangoko Udalak:

Alde batetik, Durangoko Udalaren Euskararen Erabilera Planaren bidez, erakunde barnean euskararen erabilera indarberritu eta normalizatzea bideratutako egitasmo eta jarduerak egingo dira, euskara Udalean zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza efektiboki izate aldera.

Bestetik, AROA plana iparrorratz, herri-mailan ere euskarak espazio eta funtzio propioak indartu zein beregana ditzan, hainbat egitasmo garatuko da.

Hauek dira arlo honetan aurreikusitako alderdi eta programa ekonomiko nagusietako batzuk:

HERRIGINTZA 2026		€
Adinekoak	1.016.762,59	+1,66%
Berdintasuna	540.462,60	+6,70%
Gizarte-ekintza eta gizarteratzea	1.830.692,77	+17,7%
Kirolak (Durango Kirolak)	572.414,16 5.274.195,32€	+4,11% +10,39%
Inmigrazioa	217.318,59	+7,51%

Enplegua sustatzeko programa	465.576,98	0%
Hezkuntza (Eskola Kontseilua, Hezkuntza zentroak, Haur Eskolak EPA, OLH)	2.029.185,44	+3,86%
Musika Eskola	2.155.363,40€	-0,13%
Hautzaro eta Gazteria	555.859,19	5,99%
Kultura	1.076.956,24	6,94%
(Astarloa Kulturgintza)	2.253.614,55€	(+4%)
Jaiak	515.898,00	+6,21%
Euskera	404.521,40	+10,91%
(Euskalategi)	825.869,84€	(+3,18%)

LURRALDEA

Lurraldearen arloak Hirigintza, Etxebizitza, Ingurumena, Jasangarritasuna, Mugikortasuna, Merkataritza eta Turismoa hartzen ditu.

Etxebizitza eskuratzea da Durangoko herritarren egungo kezka nagusietako bat. Horregatik, 2026ko ekitaldian lehentasunezko jarduera-eremua izango da. 2025ean abian jarritako etxebizitzaren arloko aholkularitza juridikoko zerbitzuarekin jarraitzeaz gain, ahalegin berezia egingo dugu Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin akordio bat lortzeko, datozen urteetan Durangori babes sozialeko etxebizitza publikoen parke garrantzitsu bat ematea ahalbidetuko duen etxebizitza-plan bat garatzeko. Halaber, hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko laguntza-lerro berri bat jarriko da martxan, alokairu-erregimenean eskuragarri jartzeko.

Trenbide Plan Bereziaren (Trenbideko PERIa) garapena, etxebizitzak, Bereizmen Handiko Osasun Zentroa eta parke handi bat barne hartzen dituen adostasunean oinarritutako proiektu batekin, gobernu talde honen lehentasunetako bat da, eta 2026an lanean jarraituko du Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria izapidetzen den bitartean. Gainera, Osasun Sailak Bereizmen Handiko Osasun Zentroaren proiektua 2026an garatzeko konpromisoa hartu du. Beraz, urte gakoa izango da osasun-azpiegitura garrantzitsu hau aurrera eramateko.

Zalantzarik gabe, arlo honetako beste ekintza nagusietako bat **Antso Estegizen** oinezkoentzako gunea bihurtzearen eta berrurbanizazioaren bigarren fasea da, kale honen irisgarritasuna eta segurtasuna nabarmen hobetuko dituen.

Sustapen ekonomikoaren esparruan, PP-II Eguzkitza industria-sektoreko C-EB urbanizatzeko proiektuarekin egingo dugu aurrera, balio handiko jarduera ekonomikoa eta kalitatezko enplegua sortzen duten enpresak erakartzeko.

Durangon ekonomia sustatzen lagunduko duen beste jarduera bat **merkatu berritua**

dinamizatzea da, bai eta **Landako Gunea bultzatzea** ere, azoka eta kongresuen esparruan azpiegitura garrantzitsua den aldetik. Gainera, ekitaldien teknikari bat kontratatzea aurreikusten da, bisitak areagotzeko eta tokiko ehun ekonomikoa dinamizatzeko balioko duten ekimen ekonomikoak erakartzen jarraitzeko (azokak, jaialdiak, etab.).

Bultzada nabarmena jasoko duen beste arlo bat **haurrentzako jolas-eremuak** dira. Berezik aipagarriak dira 2025ean hasitako San Inazioko jolas-eremuaren gaineko estalkia jartzea, eta Zabalarra Hezkuntza Zentrorako aurreikusitako jolas-eremu inklusiboa, eskolako administrazioarekin, irakasleekin eta familiekin lankidetzan diseinatua.

Gainera, jolas-eremuko ekipamenduen eta zoruen mantentze-lanetarako eta berritzeko aurrekontua nabarmen handitzea aurreikusten da.

Ingurumena hobetzen jarraitzea da gure beste helburu bat, eta mugikortasun jasangarriaren, zarataren kontrolaren eta energia-eraginkortasunaren arloetan lanean jarraituko dugu. Zentzu honetan, Energia eta Klima Plana eta energia-komunitateak sustatzeko hasitako lanari eutsiko diogu, Durangon isuriak eta energia-kontsumoa murrizteko.

Parke eta lorategietarako aurrekontua nabarmen handitzea ere aurreikusten da, 2026an indarrean sartuko den kontratu berriaren ondorioz.

Mugikortasun iraunkorraren esparruan, bizikleta-sarea Muruetatorreraino zabaltzen jarraitzeaz gain (aurrekontu parte-hartzaileen bidez proposatua), bizikletaren erabilera garraibide gisa sustatzen jarraituko dugu, eta hiri-minibusaren proiektu pilotua jarriko dugu abian.

Gainera, aparkaleku berriak prestatuko ditugu Larrasoloetan, eta sistema integral bat ezarriko dugu, plaza libreak adierazteko panelak izango dituenak.

Bide garbiketako, hondakinen bilketako, ur zerbitzuko eta estolderiako zerbitzuak hobetzea da legegintzaldi honetarako ezarritako beste helburuetako bat. Zerbitzu horiekin batera, 2025ean argiteria publikoaren ESE zerbitzu berria martxan jartzeak gure udalerriko beste eskaera historiko bati erantzutea ahalbidetuko du.

Azkenik, **merkataritza eta turismoa** sustatzeko politikak indartzen jarraituko dugu. HAZIrekin hitzarmena sinatu ondoren, duela gutxi berritutako Merkatu Plazaren biziberritze esanguratsu bat abiaraziko dugu 2026an, Tokiko Ekoizleen Elkartearekin hitzarmena sinatzearekin batera. Eskualde Garapenerako Plan Bereziaren (PERCO) barruan jarduerak garatzen jarraituko dugu. Ekintzaileentzako diru-laguntzen arrakasta ikusita, haien finantzaketa % 27 baino gehiago handitu dugu. Turismoan, gainerako seinalaztapena eguneratuko dugu eta udalerriko bisita gidatuak sustatuko ditugu.

Hauek dira arlo honetan aurreikusitako alderdi eta programa ekonomiko nagusietako batzuk

LURRALDEA 2026	€	%
Etxebizitza-politikak	47.000 €	Berria
Antso Estegiz erreabilitazioa	475.812,86 €	+0,25%
Mugikortasuna, TAO eta aparkatzeko sistema	1.072.959,14€	+14,65%

Ingurumena, parkeak eta lorategiak	1.682.375,09	22,37%
Haur jolasak	472.000,00	435,45%
Kale-garbiketa	2.416.614,99 €	+2,00 %
Hondakinen bilketa eta tratamendua	1.995.559,45 €	+4,77%
Argiteria publikoa	952.023,37	10,77%
Bide publikoen mantentze-lanak	1.648.003,92	13,06%
Merkataritza sustatzeko programak	467.300,00	11,45%
Turismoaren garapena	287.573,54	-3,10%

ANTOLAKETA

Antolaketa-arloak honako eremu hauek hartzen ditu barnean: langileak, segurtasuna, kudeaketa ekonomikoa, aholkularitza juridikoa, komunikazioak, gardentasuna, parte-hartzea eta zerbitzu publikoen kalitatea.

Arlo horretan, Durangoko Udalaren aurrekontuan **Langileek duten garrantzia** azpimarratu behar da. Langile-politiketarako partida 13.060.748,11 €-ra igo da, hau da, % 4,16ko igoera aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Langileen kapitulua Durangoko Udalaren aurrekontu osoaren % 28,8 da.

Segurtasunaren esparrua ere indartu egin da 2026ko aurrekontuan. Batez ere plantilla handitzean datza errefortzu hori, baina beharrezko material teknikoa ere ematen zaio, baita dagokion arropa ere.

2026ko ekitaldian ere **gardentasuna eta parte-hartzea** bultzatzen jarraituko dugu, hainbat eremutako partaidetza-prozesuak bultzatuz, eta herritarrei ematen zaien arreta hobetzen jarraituko dugu, hainbat kanalen bidez; besteak beste, zuzeneko arreta, HAZen bidez.

Auzoen garrantziaz jabetuta, auzo-elkartekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko kanalak indartuko ditugu, eta auzoetan topaketak antolatuko ditugu berriro, auzoen beharrak zuzenean ezagutzeko eta konponbideak adosten saiatzeko.

Elkartekin lankidetzan estuan lan egiten jarraituko da auzoko lokalak indartzeko, eta San Faustoko kasuan, Kapitanena birgaitzeko elkartearekin adostutako proiektua gauzatzeko lan egingo da.

Halaber, ekipo informatikoak eta telekomunikazioak modernizatzeko eta berritzeko inbertsioekin jarraituko da, administrazio elektronikoaren eta digitalizazioaren bidean aurrera egiten jarraitzeko.

Jarraian, antolaketaren arloan aurreikusitako partida ekonomiko eta programa nagusiak adierazten dira:

ANTOLAKETA 2026	€	%
Langile-gastuak – 1. kapitulua	13.060.748,11€	+4,16%
Udaltzaingoa	4.327.584,91	9,73%
Suteen aurkako zerbitzua	150.000 €	0%
Informazioaren teknologiak	986.815,71	6,74%